

Telesforo Monzon

MENDITARRAK

Iru zatitan

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria:

<http://www.armiarma.com/monzon/antz02.htm>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=306>

NORTZUEK ZER

ARTZAINAK

ILLEGORRI: Artzain zaharra.

BEGIBELTZ: Artzain zaharra, hau ere. Aren auzoa.

MAIALEN: Begibeltz artzainaren alaba: 16 urte.

IAKES: Artzain gaztea. 24 urte. Maialen-en senargaia.

FRAIDEAK

ANAI MATTIN: Sukaldari. Fraide potolo bat.

AITA XABIER: Olerkari gaztea.

AITA PELLP: Gipuzkoarra.

AITA BEÑAT: Lapurditarra.

AITA NAGUSI: Gizon argi ta saindua.

AITA ENEKO: Dantzari.

AITA IKER: Kantari.

AITA JOANES: Albokaria.

MARI-GAIZTO: Euskalerra-ko Sorgin zahar odol-zalea.

OARRA.- Ikusgarri huntan ageri direnak oro errikoiak bai dire, «h» batzu eman behar izan ditugu, tarteka. Naiz-eta bertze zonbait ken. Belarriaren eskeari diogu so-egin. Ez ortografiari. Miatzaile ta uts-ketari zorrotzenek ere... barkatuko al naute.

LEHEN ZATIA

I. AGERRALDIA

*Mendi mendian, bi artzain-xola: Ezker
eskuin, elgarri buruz-buru.*

*Eskuinekoan, «BEGIBELTZ» artzain zaharra
bizi. Bere alaba Maialen-ekin. Eta
ezkerrekoan «ILLEGORRI» -artzain zaharra
hau ere- bere zakurrarekin.*

*Bi xola oien atzean, arrizko orma bat
duzu; gereta erdian duela. Orma orren
gibeletik, larre-bidea heldu. Eta urrun,
mendiak ageri.*

*Uda duzu, eta arratsaldea. «ILLEGORRI»
bere xola aintzinean jarririk, galtz-egiten
ari.*

ILLEGORRI:

Artzaina naiz, artzaina.

Huna emen, mendi gaina...!

Neguko badut etxea

Ta an zortzi aur eta andrea...
Udan, aldiz, emen nago
Edoieri urbilago
Ardiekin mendietan.
Jan ta, lo ta, gogoketan.
Badut zakur, badut ardi
Badut xola, gazna t'ogi.
Osasunetik naikoa
Bakea... ukanen nuke
Ez ba nu ortxet... auzoa.
Zital gaizto basurdea,
Azeri bihotz-gabea
Iduri zako, mendi mendian
Dela nausi ta jabea
Odol gaiztoko urde zikina,
Elezuri gezurtia.
Laguna ba du «nor naiz ni» eta
Buruz buru beldurtia.
Nik besoetan ez ba nu indar,
Ez ba ninduen azkarra,
Xola barnean ez ba nu xispa
Ta ate ondoan zakurra
Gauaz etorri ta utziko nindun
Zokoan, or, ila emana.

Beleak, gero, multxuan eldu,
Atzeman zezaten jana.
I or aiz? Emen natxeok.
Ator, ez ba duk beldurra.
Emen atzemanen gaituk
Biok: bai ni, ta bai zakurra.

*(Aitu izan ba lu bezelaxe, Otxo asiko da
xola barnetik errotua saingaka.)*

II. AGERRALDIA

Illegorri, Maialen eta Begibeltz

IRRINTZINA: *(Urrundik) Ay, ay, ay, ay, ay, ay... I-lle-go-
rrin ardi-ak Be-gi-beltz-en so-rho-e-tan...!!!*

*(Irrintzina asi ordu, Maialen bere xolatik
atera eta bideraino urbildua da, ongi adi-
tzeko.)*

MAIALEN: *(Bidetik) Aita!*

BEGIBELTZ: (*Xola barnetik*) Ze-uzu?

MAIALEN: Zato.

BEGIBELTZ: Zer dun?

MAIALEN: Irrintzina.

BEGIBELTZ: Irrintzina?

MAIALEN: Bai! Ixo! Eginen du berriz...

BEGIBELTZ: (*Xolatik ateratuz*) lakes-en irrintzinak laister aditzen tuzu zuk. Aditzen edo...

IRRINTZINA: (*berriz*) I-lle-go-rrin ar-tal-de-a zu-en sorho-e-tan...

MAIALEN: Aitu-zu, aita?

BEGIBELTZ: Adi-araziko diot nik, bertze norbaiti ere. (*Illegorri urbiltzen zaio*) Errak Illegorri, aditu duk irrintzina?

ILLEGORRI: Nik ez diat aditzen.

BEGIBELTZ: Ez duk aditzen? Gure urratsak aditzen-tuk ba, gauaz.

ILLEGORRI: Ardienak ez, ordia. Etzekiat nun ibilki diren.

BEGIBELTZ: Gure sorhoetan, orain ere. Ez duk irrintzina entzun?

ILLEGORRI: (*Trufaka*) Zuen bazkak gizenagoak bai dire. Ola errana omen diok norbaiti...

BEGIBELTZ: (*Asarre*) Errak Illegorri. Ez nauk egun guziz gauza bera erraiten ibilliko.

ILLEGORRI: (*sutan*) Ez eta ni ere gauza bera entzuten egongo.

BEGIBELTZ: Ire ardiak gure sorhoetan bai dituk...

ILLEGORRI: Eta ire beorrak nun ibilliak ituen atzo? Gure bazkalurretan.

BEGIBELTZ: Jaiki ta abiatzen ez ba aiz...

ILLEGORRI: Zer?

BEGIBELTZ: Aterako dizkiat nik laister ire ardiak gure sorhoetarik.

ILLEGORRI: Nora oa?

BEGIBELTZ: Nere lurretarat.

ILLEGORRI: Nere ardiketarat?

MAIALEN: (*Bien artean bere besoak zabaldurik*) Zer ari zaizte orain ere? Aita, otoi!

ILLEGORRI: Ire alabagatik ez ba litz...

BEGIBELTZ: (*Bere alabari*) Oa barnerat

MAIALEN: Ez. Ementxe da nere lekua. Zuen artean. Neregatik ez ba litz, gorrituak zenituzten zuek, aspaldi, emengo lurak odolez.

Mendi mendian artzain bi

Bi artzain, mendi mendian

T'ola ibilli bear zaizte

Griña bizi ta borrokan

Batean ardiak dire

Bertzean, berriz, beorra...

Egunaz erra nagusi

Gauaz elgarren beldurra

Beti ba-uzute aitzekiren bat

Potoka ez bada, zakurra.

(*Arrenka*) Otoi, Illegorri, joan zaite ardiketarat.

Biar gure beorrak zuen larretan sartuko ba lire,

nik urrunaraziko ditut andik makillaka.

ILLEGORRI: Aterako ditut neronek, zuen bearrik gabe

(*Begibeltz-i*) Zer intzen i? Nere beldur? Ta arga-

tik emana duk ire alaba gure artean?

BEGIBELTZ: Ago ixilik! Berotzen asia nauk-eta.

ILLEGORRI: Bego. Gero ere, ukanen diagu astia. Gaki

nauk ardiketarat. Zuen bazkak ez bai lioteke

gure ardieri on eginen. (*Xispa artzen du bizka-*

rrean) Bainan adizak ongi, Begibeltz urrengoan,

asarratzen ba gaituk, e-tzakala ire alaba gure

artean eman. Mendia gizonendako duk, ez nes-

kentzat.

BEGIBELTZ: Zer duk? Au nerekin emen ikusita, bekaiz-

keria?

ILLEGORRI: Bekaizkeria? Ez nauk alaba-bearretan. Zor-

tzi aur utziak dizkiat amakin, behere ortan.

Mendian aixeago dituk gizonak bakarrik. Lane-ko ta... bertze zernaitako ere.

BEGIBELTZ: Zer duk. Mehatsua?

ILLEGORRI: Ar-tzak nahi bezala. Ez nauk urrun izanen
(*Eta badoa*).

III. AGERRALDIA

Aita-Alabak

BEGIBELTZ: Azeri zitala! Ez dituk galtzadun guziak gizon.

MAIALEN: Zer du, egun ere?

BEGIBELTZ: Bekaizkeria! Gure usaina artu ordu, bekaizkeria nausitzen. Gizon zirtzil orri.

MAIALEN: Gu ere... ez bai gera aingeru sortuak!

BEGIBELTZ: Beharrik. Aingeruak begoz Zeruko. Mendi-ko, obe ditun gizonak.

MAIALEN: Gizonak? Zertako ekartzen nauzu ba ni, alaba bakarra, mendirat? Lau seme etxean utzi-ta.

BEGIBELTZ: Zertako? (*ukitua bezela*): Ez dakit nik. Amek izaten dute... alako zer berezi bat sementzat. Aitari aldiz... utzi alaba bere alboan (*artzen du bizkarrean xispa*).

MAIALEN: (*Izitua*) Nora zoaz, aita?

BEGIBELTZ: Gure mugak zaintzerat.

MAIALEN: Zaude emen. Berak bilduko ditu, bere ardiak.

BEGIBELTZ: Laisterrago eginen baitu lana, ni ba nau ondoan.

MAIALEN: Otoi, aita, beldur naiz.

BEGIBELTZ: Beldur? Zeri beldur? Orri beldur? (*badoa*).

IV. AGERRALDIA

Maialen bakarrik

MAIALEN (*erran-kantuz*):

Nun da mendiko bakea?

Nun dut ama, nun etxea?

Mendi mendian artzain bi

Begibeltz eta Illegorri

Bi xola ta bakargoa!
Erra nausi, gorrotoa.
Etzekiat, Illegorri,
Gizon aizen edo otsoa.

*(Illegorri-n zakurra asiko da, xola barne-
tik, Maialen-i saingaka)*

MAIALEN: *(Zakurrari)* Ari adi, ari adi leher egin arte. Ekarriko diat nik laguna. *(Bere zolan sartu, ta badakar besoetan ardi-zakurkume bat)* Au aunditzean, ikusiko duk. Ibili bearko aiz dantzan. I ta, ire ardiak eta, ire jabea. Nik zorroztuko bai diozkat uni ortzak. *(Bere zakurrari, gero):* Zer duk, ezin egon? Kukusuak nausitu? *(Yartzen da):* Janen aute i, kukusuek. Una batto emen, buztan azpian. Atzeman diat. Leher adi, ustela. *(Eztiki gero):* Errak Tturko gaixoa, nun duk ik naiago. Udan emen, leku basa untan; edo neguz, etxeko supazterrean. Ik etxean utzia duk ama, eta nik ere bai. Ago geldi erroa! Kukusu izigarri bat ba duk orai ere beharri ondoan...

(Urrundik eldu, aditu bitez ezkilak. Maialen, heieri so):

To, Fraideak!... laneko iluntzea? Aita Xabier, ezki-la jotzen...! Aita Xabier!... *(Gelditzen da gogoketan. Gero berriz)* Ori! Kucusua nere belaunetarat... Ago geldi, Turko! Urde zikina. Bear diat atzeman... Emen duk... Ago geldi...

(Kanpoan, adituko dire bi tiro. Maialen, golpez jaiki ta arritua) (erran-kantuz):

Nor da hila? Nor iltzale?...
Beldur naiz joateko galde
Hiltzale-alaba ote naiz
Edo naiz aitarik gabe

(Biderat urbildu eta andik):

MAIALEN: Aita!... Aita!...

IAKES: *(Barrendik)* Maialen! Beazu...!

MAIALEN: Ze-uzu?... Ez dut begiratu nahi...

IAKES: Beazu... Erbia

V. AGERRALDIA

Maialen eta Iakes

IAKES: *(erbia eskuan)* Ukizu Maialen, bero-beroa da.

MAIALEN: Odolak ez dit atsegin egiten.

IAKES: Ukizu, neska.

MAIALEN: Ezetz.

IAKES: Ze-uzu? Ilargiaren beherapenak ez on-egiten?

MAIALEN: Zure irrintzina entzun geroztik, ez da emen bakerik.

IAKES: Ze bear nuen? Ixildu?

MAIALEN: Aita ta Illegorri mendiratuak dire biak, elgarrren ondotik, xispa bizkarrean zutela.

IAKES: Zaharren espantuak. Igorri-tzazu edoi beltz oiek burutik. Eta adi zazu ongi, aur basa: Zuen aitakin izana naiz atzo. Erran nion: dembora aintzina doala ta, ni ere mendian bakarrik eta... bearko dugula guk ere zerbeit pentsatu. Bakizu zer iardetsi zidan? Seme bat bezelaxe artuko ninduela. Ta gure gogoia hola ba da... lenbailen egiteko.

MAIALEN: Lenbailen?

IAKES: Ze ba.

MAIALEN: Aurrak izaki oino ta... zu, berriz, lehen bezin latza ta zakarra.

IAKES: Ze-ai-ze? Gibelka? Erran garbi! Ez ninduzun lehendik ezautzen? Ze-ai-ze. Itza jan nahiz? Mintza.

MAIALEN: Bearturik ez. Galde bear ba duzu, galde. Ez bortxa.

IAKES: Itza emana dautazu, aspaldi.

MAIALEN: Ez noizko.

IAKES: Noizpaiteko. Ta jakizu ongi: lakes-ek etzaituela sekulan bertze nioren besoetan utziko. Ta artaratuko ba nindukete, ez nindakela, ni ere, eskuak zarpan geldituko.

MAIALEN: Ari, ari, zu ere, ni iziarazten. Ezker-eskuineko bi otso oiek ez bai naute naiko izitua. Maiteko ba ninduzuke, mendian zoin bakarrik bizi naitzen ikusirik, goxatu ninduzuke eginen. Ez beldurtu.

IAKES: *(Eztiki)* Odola bai zaut nausitzen. Maialen...

MAIALEN: Ze-uzu?

IAKES: Etzaitut, egundaino, sekulan ukitu...

MAIALEN: Ez ta eginen ere.

IAKES: Baina gure artaldeko ardi ederrenari, Maialen diot izena emana. Eta gauaz, ene xola barnean sartzen dut. Maialen! diot oyu eginen, zato urbilago... urbilago! Ta ola, hua fedekatzen, joaten zaizkit gauak.

MAIALEN: Kontu! zure erbi orren odolari. Gorrituko-izkidazu zankoak.

IAKES: Bart arratsean ere, ortxe nintzen...

MAIALEN: Nun?

IAKES: Zure xola ondoan.

MAIALEN: Noiz?

IAKES: Gauerdi punttan.

MAIALEN: Bazen ilargirik?

IAKES: Biotzean ekarki nuena. Ortxet iragan nuen, egonean egon, gau guzia. Ortxet, xola onddo-onddo-onddoan...

MAIALEN: Ze behar zenuen?

IAKES: Aditu.

MAIALEN: Gauaz? Zer aditu?

IAKES: Zure hatsa.

MAIALEN: Nere hatsa?

IAKES: Zure hatsa bai, zure hatsa (*Urbiltzen zaio*): Arek eztitzen baitu nere gosea, Maialen.

MAIALEN: Zaude ixilik lakes, izitzen nauzu.

IAKES: Izitzen? Goseak izitzen nau ni. Ez aseak.

VI. AGERRALDIA

Maialen, Iakes eta Illegorri

ILLEGORRI: Gabon.

IAKES: (*Ilhunki*) Bai zuri ere.

ILLEGORRI: Zer duk? Erbia?

IAKES: Ola iduri.

ILLEGORRI: Aixé iltzen-tuxte batzuek, bertzen zakurrek altxatutako iziak.

IAKES: Ez dut nik, erbi iltzeko, zure zakurren bearrik.

ILLEGORRI: E-tzekiat ba.

IAKES: Ez dakienak obe luke ixilik egon.

ILLEGORRI: Batxe gizona, batxe... I bezelako gizon gazte ederra, ez likek ola kexatu bear. Irrintzina ere hola duk ik eder, luze, azkarra. Aspaldiko errana duk: salatarien irrin tzina baino azkarra- gorik ez omen.

IAKES: Ze ibilki-ze zu emen. Borroka billa? Zure adinak atxikitzen nau geldi. Ez nere barneak.

ILLEGORRI: (*trufaka*) Pulliki gizona, pulliki... I bezelako muttiko pullit bati, e-litzaioke odola ola nagusitu bear.

IAKES: (*sutan*) Joan zaite xola barnerat, Maialen.

MAIALEN: Ez. Ez naiz joanen. Erroak bai zaizte zuek gizonok, erroak.

IAKES: (*berriz*) Joan zaite xola barnerat, Maialen!

MAIALEN: Bai, berdin, joanen naiz. Aski duzute elgar xeatze.

IAKES: (*Sutan*) Ogeitamar urtez gazteago baldin ba zinduke...

ILLEGORRI: (*Irriz*) To, e-nindake, i bezala, neska baten aintzinean belauniko egonen. (*Sartzen da bere xolan*)

MAIALEN: (*Xolatik atera'a*) Utzazu bere gisa, lakes, adineko gizona baita.

IAKES: (*Sutan*) Beharko utzi. Ezpainaiz ni atso zaharrekin borrokan ibiltzeko sortua. Orren zakurrak altxatu nere erbia?

MAIALEN: Bakizu nori behar zenioken eman, erbi ori? Asma-zu.

IAKES: Nori?

MAIALEN: (*Eztiki*) Zure lagunik oberenari.

IAKES: Aita Xabier-i? Gogotik. Bainan... ez dit artuko.

MAIALEN: Zergatik?

IAKES: Ez baitu aragirik iaten. Naikoa du arek, bere otoitz eta ametsekin.

MAIALEN: Aita Xabier... Noiztik duzu lagun?

IAKES: Aur denboratik. Biak artzain ginen. Hua goxoa izaki ta ni zakarra. Argati, nik uste, beti elgarretarat biltzen.

MAIALEN: Oin goxoa da, beaz?

IAKES: Goxoa? Ez da, mundu zabalean, bertze holako gizonik. Arek daki, arek, barnetik maitatzen.

MAIALEN: Maitatzen?

IAKES: Arek? Ez da, hua bezelako anairik.

MAIALEN: Eta maitatzen ikasia ba zen ola, zertako sartu zen fraide?

IAKES: Zertako?... Nolakoa zen ikusi ta, gure Jainkoak beretako bildu, nik uste. Guk ere ez-paititugu, ondo txarrenak berezten. (*Urrunerat begira*): To! Etxeak behar eta bideak ekarri. Orra nun eldu den, aldapa goitik, anai Mattinekin. Galdetuko diogu oraintxe: amodiorako sortua izaki ta, zergati bilakatu zuen bere burua fraide.

MAIALEN: (*Ikaratua*): Ez, ez; ez galde, ez galde.

IAKES: Ze-uzu?

MAIALEN: Ez galde lakes, otoi, ez galde.

IAKES: Ze-uzu, gorri-gorri eginda?

MAIALEN: Deus ez... Menditarra izaki neu ere-ta... aixe ahalkatzen (*sartzen da bere xolan*)

IAKES: Etzaitela gorde Maialen, zaude emen!

(*Gero, bakarrik*):

Aur bitxiagorik munduan ote den...

Batzutan mendiko basurdea iduri

Ta bertzetan, berriz, ardi goxo xuri

Ez nuke jakinen, besoetan ba nu,

Bear nuen ito... edo muxukatu.

VII. AGERRALDIA

lakes, Anai Mattin, Aita Xabier eta Illegorri.

Bi Fraideak, astapenean, barneti mintzatu. Ageri gabe.

ANAI MATTIN:

Amatxo maitia! Akabo Aldapa!!

Biotza dut jautsi ta zalapartaka...

Kasu, Aita Xabier ortxet, erroitz ortan...

Emazu zangoa hemen, arri huntan.

AITA XABIER:

Ez kexa, anai Mattin. Fraile egin baino lehen
Artzaina ninduzun. Menditarra nintzen.

IAKES (*sumatu bai ditu*):

Gordeko naiz emen, oiek eldu arte. (*Gordetzen
da*)

Golpez ageriko, ta ikusiko naute.

Anai Mattin zaharrak! maite du erbia!

Pozik artuko du biarko afaria.

(Bi fraideak ageri bitez)

ANAI MATTIN (*Leher egina*):

Eldu gaituk noizpait... Au duk au aldapa
Izerditan nago. Nator arrastaka...

Norbaiten errana: «Gora zu, hiria!

Ta otsoendako dagola mendia»

Zahartzeak ere, ezpaitu gauz onik.

(A. Xabier-i begira):

Zer duzu zuk ola, hoin ilun ta ixilik?

Orain ere zerbeit izaki!

Mutikoa! bizi adi *deskantsuan!*

(aren beharrirat):

Bizkar artaraino bear naiz urbildu
Ta onddo batzuek, afaltzeko, bildu,
Arantzazu-ko Ama berezi emanik
Ezpaita... onddoa baino gauza oberik
Zu gelditu zaitez emen, artzainekin.

AITA XABIER: Jarraituko zaitut obe, Anai Mattin...

ANAI MATTIN: Zertako? Onddoak bilduko ditut nik. Izi-
tzen al zare mendian bakarrik?

AITA XABIER: Bakarrik ba nego, ez nindake beldur.

IAKES: (*gorde-lekutik*) Laguna zait mintzo? Iduri zaut
gezur.

ANAI MATTIN: Banoa. Yainkoak dagizula lagun.

AITA XABIER: (*Debrua ibilki zaut inguruan, egun.*)

IAKES: (*Debrua inguruan, Aita Xabier-i? Nere laguna
dut ola mintzo ari?*)

ILLEGORRI: (*Xolatik ateratuz*) Fraideak izaki? Eleketan
segur. Adi Anai Mattin... Aita Xabier agur.

ANAI MATTIN: Zuri ere artzain.

AITA XABIER: Agur Illegorri.

ILLEGORRI: Mundu zabal ortan, ba da zerbait berri?

ANAI MATTIN: Erraiten dutenez, gerla urbil dago... Ez
naiz beldur. Barnez bakean bai nago.

ILLEGORRI: Gerla? Azkenean aterako dute. Ta gure semeak eremanen-tuzte. Zertako ez bear munduan bakea?

ANAI MATTIN:

Egia zuk duzu artzain, baina beha...
Auzoa auzoakin bizi ba da gerlan
Mundua etzaizu biziko bakean.

ILLEGORRI:

Auzoakin? Gaitz da bakean bizitzen.

ANAI MATTIN:

Artako munduan da gerla nausitzen.

ILLEGORRI:

Beorak izaki edo artaldea...
Mugak or bai dire, ak abo bakea.

ANAI MATTIN:

Ardiekin-edo, naiz soldaduekin...
Errege ta artzainek... Gerla maite berdin

IAKES (*gorde lekutik*).-
(Adizak basurde, ta ar-tzak iretako).

ILLEGORRI: (*Illun*)

Gaur igande al da, predikuetako?

ANAI MATTIN:

Ez legoke bear, egizko fraidea
Egia erraiteko... iganderi beha.

(Anai Mattin badoa)

VIII. AGERRALDIA

Aita Xabier eta Iakes. Gero Maialen ageriko.

IAKES: *(Gorde-lekutik aterata)* Ezautzen nauk?

AITA XABIER: Iakes! Nun intzen gordeta?

IAKES: Obendun nauk. Argati naiz gorde.

AITA XABIER: *(irriz)* Obendun? Nor duk il?

IAKES: Una! *(erbia erakusten dio)* Barka nazak. Artako aiz fraide.

AITA XABIER: Biotzgabea! Beingoz... barkatzen aut.

IAKES: Penitentzia?

AITA XABIER: Besarkada haundi bat. Ator!

IAKES: Ba orixe. Gogotik *(Besarkatzen dute elgar)*

AITA XABIER: Nun bizi aiz i, ezker gaitza?

IAKES: Ta i, nun gorde aiz aspaldi huntan, aur zikoitza?

AITA XABIER: Banuen ba egun, ire bearra.

IAKES: Zer duk?

AITA XABIER: (*begiak lurrean*) Illuna... Illuna ta, ez dakit nik, sekulan baino ire-bear aundiagoa.

IAKES: Illuna? Txikitatik ola bizi aiz i: batean illun, bertzean alai, egun azkar, biar eri, beti kexu. Obe lukek ni bezin zakarra ta sonua ba intza. Errak lasai. Zer duk?

AITA XABIER: Beldur nauk, lakes.

IAKES: Xoratu aiz mutikoa? Nori ago beldur?

AITA XABIER: Ene buruari nauk beldur?

IAKES: Ire buruari beldur? Ua duk-eta, ire lagunik oberena: ire burua.

AITA XABIER: Nere lagunik oberena, i aiz.

IAKES: Ola ba duk, errak! Eldu den igandean, ba duk asti?

AITA XABIER: Zertako?

IAKES: Pillotan lotzeko biak, gure aur-denboran bezala.

AITA XABIER: Ator gozaitarat! Ariko gaituk gero.

IAKES: (*Erbia erakutsiz*) Una emen, gozari-ordaina! Eramak!

AITA XABIER: Emanen diok ik, obe, Aita Nagusiari.

IAKES: Ze ba? Erbi hilari ere beldur? Agur, xoroa! Gaki nauk, ardien biltzerat! Igandean atera bearkotuk izerdi onak! Ago azkarrean! (*Badoa*)

AITA XABIER: *(Oyu)* lakes!

IAKES: *(itzulita)* Zer duk?

AITA XABIER: *(Begiak lurrean)* Deusik ez... Joan adi.

IAKES: Baina zer duk mutikoa? Piztu adi! *(bat batean)*
Ago, atzemanen diat nik laguna *(oyuka)*. Maialen!
Maialen

AITA XABIER: Ago ixilik lakes! otoi! ago ixilik!

IAKES: Zer duk, orain ere?

AITA XABIER: *(lotsaz)* Deusik ez... Maialen bere lanetan duk... etzakala makurtu nigatik... joan adi!
(Maialen ageriko da xolako atean)

IAKES: Maialen, una emen aita Xabier; zuk ongi ezagutzen duzuna. Alegerazizu. Ekarki-iozu ardi-esnetaz gazna. Ez aiantzi Maialen -ez aiantzi gero!- nere munduko lagunik oberena... hau dela! Nun dizkiat ene zakurrak? *(lotzen da zakurreri deika)*
Emen zaizte? Goazen! Erran bezala, beaz? Agur gazteak! *(Eta badoa. Maialen sartzen da bere xolan)*

IX. AGERRALDIA

AITA XABIER (*bakarrik*):

Nausitzen delarik mendian egoa
Aizeak ibilki airean ostoan,
Aizearen mutil, aizea dut jabe
Arek ibilki nau, neronek nai gabe.
Aize-egoarekin eldu den usoa
Egarritu baita, uretarat doa.
Nork erranen dio uso gaixoari
«Oa, edan gabe, Uso! Urrun adi!»

.....

Barka, Jauna, barka! Egoa dut nausi
Arek ibilki nau. Arek nau nahasi.
Bi lagun bai ditut: Xabier eta Zu.
Biendako leial ninduzun ta nauzu!...

(Maialen ageriko da, Kaikoa eskuan)

MAIALEN: (*basati*) Ardi-esnea bear?

AITA XABIER: Kaikua bete? Itoko nauzu, aurra!

MAIALEN: Edazu! Bada geio. Ardi-gaznarik nahi?

AITA XABIER: Milesker. Ez naiz gose.

MAIALEN: Mamia ere badugu, erre-usainakin egina.
Janen duzu?

AITA XABIER: (*eztiki*) Ez dut bearrik...

MAIALEN: Pikuak bilduko dizkitzut arbolatik?

AITA XABIER: Etxeko guziak emanen dauzkidazu zuk.

MAIALEN: Eta zuk ez artu. Zer zaitue? Mendiko jan-
edariak izitzen?

AITA XABIER: Menditarra nauzu ni ere. Aurra nintzela-
rik, mendi hauetan ibilla. Zazpi urtekin fraidetu.
Ta geroztik ere, ortxet mendian bizi.

MAIALEN: Aita Xabier... Zu zinen, egun, ezkila-jotzen.

AITA XABIER: Ze ba? Ezautzen dituzu fraideen joerak?

MAIALEN: Ardiak eta behorrak ere, hola ezautzen ditut
nik. Beren joale-soinutik. (*Fraidearen ondoan
jarrita*) Ezkilak jotzen dituzunean, nori egiten
diozu dei?

AITA XABIER: Mendiko artzain deneri.

MAIALEN: Neri ere bai?

AITA XABIER: Yainkoaren deia, zuri doakizu xuxen,
xuxen.

MAIALEN: Zure eskutik eldu zait?

AITA XABIER: (*nahasia*) Aurra... joan zaite zure laneta-
rat Illuna ere ez bai da urrun.

MAIALEN: Ez nauzu nahi zure ondoan? Ardiak deisteko badut asti. Xolako lanak eginak ditut. (*Gelditzen da gogoketan*) Aita Xabier... Eldu den igandean, Meza Nagusian, bear duzu kantatu? Bozkariozko eder ua dut maite. Besta-Berri'ko hura. Emazu!

AITA XABIER (*Besta-Berriko Aleluia-airearekin*):
Kantari, kantuz nauzu
Kantuz naiz alegera

MAIALEN:
Kantari, Kantazu ba
Kantuz naiz zuri beha.

AITA XABIER:
Yainkoak badaki mutil nauela!

MAIALEN:
Bozkarioak artua nau
Egun, mendian nagoela.

(Maialen dantzan ari zelarik, Mari-Gaizto agertu da, doi-doia. Maialen eta fraideak ez dute ikusi. Dantzan bukatzean, Maialen jarri da berriz lurrean, fraideari urbil)

MARI-GAIZTO: (*bere baitan*) Atzeman ditut, uste gabean. Ene gaitz-erran goseak ba du bazka. Orain, ene mihia, zorroztu adi eta mogi. (*Au erranda, gordeko da berriz*)

AITA XABIER: (*arrunt nahasia*) Bazen norbeit?

MAIALEN: Nun?

AITA XABIER: Ez urrun, nik uste. (*Maialen ateratuko da begiratzerat*)

MAIALEN: Bazen bai norbeit. Anai Mattin eldu, onddosoka izigarria zintzilik.

ANAI MATTIN:

Kantuz zinatela? Obe hola, obe.
Bizitzari, kantak ematen Kolore.
Ni? Zeruan nauzu kantuz zaiztelarik:
Infernuan, aurrak, ez bai da kantorik.
Orain... lauda-zagun Zeruko Yainkoa
Eman digulakotz lurrean... onddoa!
Ta goazen. Pasa gabon.

MAIALEN:

Agur Anai Mattin.
Gabon, Alta Xabier. Biar arte?

ANAI MATTIN: (*onddoeri begiratu bat eginda*): Berdin...
(*Fraideak badoaz*)

X. AGERRALDIA

Maialen, Illegorri eta Mari-Gaizto

(Maialen, bozkarioak arturik, lotzen da berriz dantzan):

Kantari, dantzan nauzu

Dantzan naiz alegera

Dantzari, Kantuz nauzu...

(Kanpoan, suma bitez beorrak galopoka.

*Heien joaile-soinu, arrabots eta irrintzina
nak aditurik):*

MAIALEN: *(arritua)* Beorrak! Gure beorrak iges egin!
Illegorri-k illen gaitu, illen!

(Erran-Kantuz)

Illegorri'k ikustean

Gure beorrak mendian

Errotuko da, ta illen gaitu

Bere asarre-aldian!

*(Kanporat ateratu ta beren zakurrari
oyuka)*

Moro! Moro! Atxiki-itzak! Atxiki-itzak! Ekarri-itzak
barnera beor oiek!

*(Kanpoan aditu bitez beti - batean
urrunsko, bertzean urbilago - beorren
arrabots eta zakurren saingak)*

MAIALEN: Aita! Aita! *(Irrintzina igorritz)* Gu-re be-o-rrak
Ille-go-rrin so-rho-e-tan!!! *(Eta xolan sarturik,
aterako da makila eskuan. Bere aintzinean, Ille-
gorri ikusten du)*

ILLEGORRI: *(Sutan):* Zuk ideki langa?

MAIALEN: Nik?

ILLEGORRI: Beorak kanpoan dire. Bearko-tuzu bildu.

MAIALEN: Artako nuen makila eskuan. Baina, illun
baita...

ILLEGORRI: Zuen barneak dire beltzak. Ez gaua.

MAIALEN: Ez ditugu guk libro eman. Espekatu egin
dire.

ILLEGORRI: Nondik espekatu? Langa etxia zen, astian.
Ze ari zaizte? Ni erro-arazi nahiz? Xeatuko dizki-

date sorhoak, beren zangoen azpian. Bainan ez bai naiz ni ere geldirik egonen.

MAIALEN: Makila eskuan dut. Banoa (*kanpotik*) Moro! Atxiki itzak! Atxiki itzak! Bildu itzak una! Huna!!! Barnera bildu-itzak!!! (*Badoa, gau illunean, beorketarat. Eta Illegorri, gaua-bera baino illunago, bere xolan sartzen*)

MARI-GAIZTO: (*Doi-doia ageriz. Bere baitan*) Mendian dituk, Illegorri, Begibeltz ire auzoaren, ire etsaiaren beorrak. Nik ideki diotet langa. Neronek, Mari-Gaizto'k! Zuen arteko herra ta gorrotu-sua sekulan ez dadin hil. Nik piztu ta bizi arazten ditut, Eskualerri-an, auzoen arteko ezin-ikusi eta gorrotoak. Neronek, Mari-Gaizto'k! Batean langak idekiz... bertzean muga-arriak mogituz...

MAIALEN: Nora oa behorra? Moro! Ekarri itzak! Ekarri itzak barnerat!

MARI-GAIZTO: Nik piztu arazi ditut, menderik mende, eskualdunen arteko gerla ta odolaldiak ere, Nik, emengo bazterrak gorritu. Neronek, Mari-Gaizto'k! Ola, uskeri batez... Mendi hauetako alaba bai naiz neroni ere. Ta nere haurrideak ongi ezautzen.

MAIALEN: Hortik, Moro, hortik! Atxikiok! Ator ene gibelitik. Goazen! (*Arrabotsa adituko da. Ta aren ondotik*) Ay Ama! Amildu naiz... Aita! Aita!...

MARI-GAIZTO: Ixo. Amildu da... Beharrik. Sua piztu dugu. Betor orain egurra. Egurra su horri. (*«Dantza» soinuak eraginda, lotzen da Mari-Gaizto dantzan. Eta gero gaki.*)

XI. AGERRALDIA

Begibeltz eta Illegorri.

(Begibeltz-ek, bere alaba Maialen besoetan ekarki)

BEGINBELTZ: Maialen! Ez nauzu ezagutzen? Aita ez duzu ezagutzen? (*Illegorri-ren xola aintzinetik iragaitan*) I aiz i, nere alabaren iltzailea!

MAIALEN: Aita! Nun naiz?

BEGINBELTZ: Aitaren besoetan, aurr.

MAIALEN: Beorrak! Beorrak nun dire? (*Aitak sartzen du bere alaba xola barnean*)

MAIALEN: (*Xola barnetik*) Behorrak! Behorrak laisterka!
Illegorrik illen gaitu! Aita Xabier... atzeman itzazu behor oiek. Aita Xabier!...

(Begibeltz, Xolako ate-aintzinean, lotuko da erran-Kantuz, mendian beorren arrabotsak aditzen dituela)

BEGIBELTZ:

Mendi mendian bakarrik
Alaba eri delarik
Ez diot ekartzen ahal
Ez miriku ez apezik.
Au mendiko bakargoa!
Etsaia bai dut auzoa
Zer erranen du, gauaren gauaz,
Laguntza-eskean ba noa?

(Illegorri-ren xolari begira): Ez. Ez nauk joanen. Ez nauk eskean joanen. Eskean iregana joatea baino, naiago diat alaba galdu... Ez. Ez diat alaba galduko. Ez diat alaba, zakurra be zala, mendian iltzen utziko. *(Ixil-ixilik, bere bartan)*
«Illegorri, otoi, joan adi apez eta midikuketarat. Alaba ez diat usten ahal ola, mendian iltzen

bakarrik. Illegorri, joan adi. I etzaiz gaiztoa...»
Ez. Ez nauk iregana eskean urbilduko. Ez nauk
ire oinetarat ekarriko.

MAIALEN: (*barnetik*) Nor ideki du langa ori? Beorrak!
Sar zaizte, beorrak! Illegorri-k illen gaitu!

BEGIBELTZ: Bai... joanen nauk. Joanen nauk... (*Illegorri-
n atean jotzen du; eta aren zakurra, erroturik,
saingaka lotzen*)

ILLEGORRI: (*barnetik*) Ago ixilik zakurra! Nor da atean?

BEGIBELTZ: Ni nauk, Begibeltz, eskean eldu.

ILLEGORRI: Begibeltz eskean? Ez litake Begibeltz. Ze
bear duk?

BEGIBELTZ: Ideki zak atea.

ILLEGORRI: (*atea idekiz*) Emen nauk. Ze bear duk. Ez
nauk beldur.

BEGIBELTZ: (*ezti-eztia*) Alaba diat mendian eroria. Eza-
gutzarik ez du. Azkenetan diat.

ILLEGORRI: Gezurra. Gezur zikina. Alaba duk, orain ere,
ezpainenetan? Mintzo adi gizonak bezala. Etzaka-
la gure artean alabarik eman.

BEGIBELTZ: Behorketarat joana zen gauaz...

ILLEGORRI: Zuek laxatuiako behorrak!

BEGIBELTZ: Ez ditugu guk laxatu...

ILLEGORRI: Eta orain ze bear? Ene burua

BEGIBELTZ: Ire laguntza.

ILLEGORRI: Behorketan ibiltzeko? Oa emendik, atso zahar gezurtia!...

BEGIBELTZ: Ez ire burua ito arte (*Lotzen dire borrokan, gauaz, urrundik behorren arrabots eta irrintziak aditzen direla. Begibeltz-ek joko Illegorri xispakin buruan. Ua lurrerat erortzen*).

BEGIBELTZ: Ago! Ago ortxet! Ito adi! Hil adi! Leher adi! Berdin nauk... Ez! Ez adi ito... Ez adi hil! Iltzale nauk! Iltzale aiz, Begibeltz! (*Lotzen da negarrez*) Illegorri! Ez diat, bizitzerik merezi. Ez-eta bear. Ez-eta nahi... Bai! Bizi nahi diat. Alaba behar diat bizi arazi. (*Xolako atetik, eztiki*) Ago Maialen! Eldu naiz kusian. Ago hol-hola, gaixoa. Berala heldu naiz (*Badoa*)

ILLEGORRI: (*Burua altxatuz*) Ez nauk il ba!

MAIALEN: Behorrak! Behorrak eldu! Geldi behorrak! Illegorri-k illen gaitu

ILLEGORRI: Etzen gezurra?... Egia zen?... Amildua zen?...

MAIALEN: (*Goxoki*) Hola behorrak, ola! Eldu zaitze, eldu, nere eskutarat eztiki. Aita Xabier-ek zaituzte bildu. Aita Xabier...

ILLEGORRI: Urbiltzen ba naiz, ikusten ba nau, izituko da. Obe nuke, arrastaka, nere xolan sartu...
(Abiatzen da) (Mari-Gaizto ageriko da gero. Eta dantzan ari delarik, oialak etxiko)

Lehen zatiak amaia

BIGARREN ZATIA

I. AGERRALDIA

Mendi Mendian, Fraidetegi zahar bat: Ez gure artzaineri urrun, eta lakes-en xolari urbil.

Fraidetegi barnean gare. Komentuko eskaratza dugu begien aintzinean. Buruz-buru, ate aundi bat: kanporakoa. Ezkereskuin, bi ate txiki: etxe-barne ta elizarakoak.

Eskaratzeko paretak, xuriak edo xuri izanak dituzu. An-emenka, egurrezko jarleku zahar batzuek ageri. Ezkerreko hormati dilindan, Andre Dena Maria-ren Irudi bat. Eta ari buruz buru, egurrezko Gurutzea. Sarrerako ate ondoan, ezkilasoka zintzilik.

Gaua da. Barneko argiak, lege-zaharrekoak izaki. Bederatzi orenak joak. Gure Aita Xabier eta Anai Mattin, menditik etxeratu berriak.

Oialak idekitzean, aurrez-aurre, bi fraide dagoz jarririk, elgarri begira: Aita Pello (Gipuzkoarra) eta Aita Beñat (Lapurdi-ko semea). Bakoitzak badu, bere zudur aintzinean, liburu aundi bat idekia. Arek La Historia de España por Rodolfo Moreno, Eta hunek L'Histoire de France par Gustave Le Blond. Mintzo direlarik, orduantxe igitzen dire gure fraideak. Bertzela, begoz geldi: egurrezkoak ba lire bezela. Aditu bitez, astapenean eta gero ere tar-teka, fraidegaien eliza-kantak.

AITA PELLO (*Bertze fraideari zorrozki begira*):

Gora! Gora Espainia!
Bere Santu, bere Errege
Bere kondaira guzia.
Gure Espainia-lakorik
Ez da munduan Erririk
Espainia-ren aurrean
Bego Frantzia lurrean
Lotsaz... begiak apalik!

AITA BEÑAT:

Zoin ederra den Frantzia!

Bere Errege, bere Saindu
Bere lur... bere grazia,
Frantzia bezelakorik
Ez da zeruan izarrik!
Izar orren aintzinean
Espaini bego lurrean
Belauniko... eta ixilik!

ANAI MATTIN: *(Sukaldeko amantal urdina soiñean)*
Aitaren eta Semearen... *(bere buruakin mintzo)*
Anai Mattin, erran diat aspaldi: Etxe huntan ez
duk funtxarik. Ez-duk fun-txa-rik! Batzuek elizan
kantuz, bertzeak baratzean dantzan... Otoitza
ere: sekulan baino geio. Gazte oiek ola dituk
orain: beti otoitzean. Baina sukaldeko... Nior ez.
Ni-or-ez! *(Fraidieri begira)* Orra bi oiek ere...
Etxe huntan buru pixkat ba'litz, ze lan ederra
egin zezaketen biak... patata xuritzen. Ezpaita
bururik, ordia. Ez-da bu-ru-rik! *(Barneko atetik
oyu)* Aita Xabier! Bakizu ze tenore duzun? Ez al
dituzu, janeko, ezkilak jo bear? Zeri begira zare?
Artzain gaizoak or egonen dire, gaueko ezkeri
beha, ogeratu gabe.

AITA PELLO: *(Idorki)* Anai Mattin, zato.

AITA BEÑAT: Zato bai, zato. Ez naiz beldur.

AITA PELLO: Zein da, zure iduriko, aundien: Espainia edo Frantzia?

AITA BEÑAT: Barkatu: Frantzia edo Espainia?

ANAI MATTIN: Beazute, nere Aita ta jaun maiteak: lanez itoa nauzute. Sukaldean bada saski aundi bat patata-berri, xuritzeko. Etziñateke biak artan lotuko?

AITA PELLO: Patata-xuritzen? Kondaira barneko Errege ta gerraldiak dituzu buruan.

AITA BEÑAT: Ez sukaldeko lusagarrak, Anai Mattin.

ANAI MATTIN: Ongi da. Segi ortan. Moldatuko naiz nolabait. Gaua luzea baita. Bainan ez itzazutela zuen errege ta gerlaldiak geiegi laudatu, baratzeko lusagarrak soberasko bei titurik. Errege ta gerlarik gabe ere, biziko bai nindake ni. Bainan patatarik gabe, zuek ez. Eta erran, ene Aita ta jaun maiteak: zergaitik ari zaizte beti, elgarri mokoka? Etxeko bi Aita zaharrenak ere hol-ola ditut, joan den astetik unat. Ez dire elgarrekin mintzatzen ere.

AITA PELLO: Zer dute?

ANAI MATTIN: (*Ixilka*) Batek eletrikari, eskuera ere olaxet «eletrika» bear zaiola erran sanuki. Ta bertzeak berriz... nola erran zuen?... ximistar-

gia. Ze oyuk! Geroztik akabo: Ez dute elgarri agurrik egiten ere. Atzo bilduak nituen puliki elgarretarat. Ez bai zuten mahi berean afaldu nahi izaten ere. Bainan alako batez, nik arno pittat ekarri niotelarik, batek basoari hol-ola «basoa» bear zitzaiola erran, eta bertzeak berriz «edan-ontzia»... lotu ziren oyuka berriz biak eta akabo. Geroztik sutan ditut, sutan

AITA PELLO: Txikikeriak dira oiek. Gu goitik ari gera, goitik.

ANAI MATTIN: Ttipikeriak? Ez dire ttipikeriak ez. Mari-Gaizto ibilki baita dantzan. Eta hua ikasia izaki: pindar txipiakin, Eskualerrian su aundiak egiten. *(Bi fraideak gelditu bitez ixilik eta geldi)*

II. AGERRALDIA

Anai Mattin eta Aita Xabier

ANAI MATTIN: *(A. Xabier ikusiz)* Ori! Emen zare? Ez da goizegi, aurra. Zer egin duzu gelan, menditi

biok etxeratu geroztik? Ez duzu, gaur, afaldu ere.

AITA XABIER: Anai Mattin, otoi, ez zenituzke, beingoz, gaueko ezkilak zehorrek joko?

ANAI MATTIN: Gaueko ezkilak nehorrek jo? Ze-uzu?

AITA XABIER: Ez dakit...

ANAI MATTIN: (*Trufaka*) Ez dakit... Ilun naiz... (*Ikusleri begira*) Ni ezkondua ba nintz eta hau mutil gazte, egon trankil ez nion nik uni, belauniko etorrita ere, alabarik emanen. Gizon sanuak maite-tut nik. Funtxako gizonak. Ez tir, tir, tir... pilosopikeriz erdi xoratuak... (*Badoa sukalderat*)

AITA XABIER: (*Ezkila-soka eskuetan arturik, ametsetan bezala*) Nola behar ditut ezkilak jo? Alegera?... Hilun?... Maialen mendian... Maialen mendian, nere ezkeri so... Eta nik soka hunekin zernahi erraiten ahal. Eta berak adituko. Erlea bezelaxe ibilki zait inguruan pekatua. Artako diot soka huni beldur. Beldur... eta amodio.

(*Erran-kantuz*):

Arantzazu-ko Andre-Mari

Nahi dut eta ez nahi...

Fraidea eta gizona

Dauzkitzut borrokan ari!

(Kanpoko atean, jo du norbaitek)

AITA XABIER: *(Arritua)* Nor da hor?

IAKES: *(Kanpotik)* Ni naiz, lakes artzaina.

(A. Xabier-ek, atea idekiko dio)

III. AGERRALDIA

A. Xabier eta lakes

AITA XABIER: lakes! Zer duk tenore huntan?

IAKES: I ago atean? Obe.

AITA XABIER: Zer duk ba?

IAKES: Uste nian bauela zerbait. Ez bai nizkian eskilak aditzen. Egon ta egon: Ezkilarik ez. «Xabier-ek badik zerbeit» ene baitan. Makila artu ta «banatxeok» ene buruari eginda, laisterka etorria nauk galdetzen. Zer duk?

AITA XABIER: Deusik ez. Lanean ezkilak ahantzi. Artako etorri aiz, gauaz, xolatik unat

IAKES: Ez nian, bertzela, lorik eginen.

AITA XABIER: Lagun zaharra, beti lagun. Oa, berriz.
Beranta duk.

IAKES: Errak. Mari-gaizto ikusi diat.

AITA XABIER: (*Arritua*) Mari-Gaizto? Hemen? Gauaz?
Nun ikusi duk?

IAKES: Ortxet, unatekoan: Larralde-ko oyanean.

AITA XABIER: Eta?

IAKES: «Gazte! Gazte! Ator Gazte!» asi zait illunpetik
oyuka.

AITA XABIER: Eta urbildu aiz?

IAKES: Bera biderat etorri.

AITA XABIER: Ik?

IAKES: «Baztertu adi -egin diot- ez diat iretako asti-
rik.»

AITA XABIER: Eta berak?

IAKES: «Atzemanen aut, itzulian. Bearko nauk entzun.
Arrituko aiz, nere erranak aditzean. Baina kasu
emak: Ire alde ari nauk.»

AITA XABIER: Bilduko au, azkenean.

IAKES: Ni bildu? Ago ixilik. Sorgin mutxurdina! Neska
gazte ederra balitz, oyanean ola gauaz atzema-
na...

AITA XABIER: Ago ixilik. Fraidetegian ago...

IAKES: Ba! Nik Maialen diatburuan. Ez bertzerik.

AITA XABIER: Errak. Gure Aita Nagusia ezagutzen duk ongi...

IAKES: Nik uste.

AITA XABIER: Saindua duk, ezta?

IAKES: Ba-pittat!

AITA XABIER: Orrek ez dio ba, Mari Gaizto-ri trufa egiten. «Niork ba al daki -egiten digu maiz- nun den emazteki ori bizi. Nun den sortu. Nun egiten duen lo. Nork ematen dion jaten. Zaharra da, ta dantzan zalu ibilki. Ixilekoak jakiten eta gezurrak asma. Hua iragan lekutik, bakea igesi. Egun Gipuzkoa-n ageriko zaizue, biar Naparroa-n, atzo Lapurdi-n...»

IAKES: Ez kexa. Betorrela, betor. Orain gaua dela erranik ere, ez bai diot sinetsiko.

AITA XABIER: Oa ba. Ibil adi erne.

IAKES: Ez kexa. Egizak lo (*badoa aterat*).

AITA XABIER: Errak...

IAKES: Zer duk?

AITA XABIER: Nik artzaingoan bazekiat. Ikasi zak, ik ere, fraide ofizioan. Una emen soka. Jo-itzak ezkilak zehorrek.

IAKES: Gogotik. Baina nik artzain-gisa joko dizkiat gero zakarki. Erranen du, berriz ere, norbaitek: «Zakar ori! Goxoagoa duk laguna!» (*Artzen du soka eskuetan*) Maialen! Atzar adi Maialen! (*Lotzen da ezkila-jotzen. A. Xabier, artean, ametsetan bezela dago. Iakes, gero, xoraturik*) Munduan ez duk, Xabier, ni bezelako Erregerik. Ene mendiak maite dizkiat. Ene ardiak ere. Bertzerik ez diat behar... Maialen neria izanik!

AITA XABIER: Oa

IAKES: Egizak lo, lagun zahar (*Eta badoa*).

IV. AGERRALDIA

A. Xabier eta A. Nagusia

(Aita Xabier gelditu da bakarrik. Nun dagoen ere ez dakiela. Maialenekin mendian egindako kantak etortzen zaizkio gogora. Barnetik aditu bitez)

«Kantari, kantuz nauzu

Kantuz naiz alegera.
Kantari, kantazu ba
Kantuz naiz zuri beha.
Yainkoak badaki mutil nauela!
Bozkarioak artua nau
Egun, mendian nagoela...»

AITA XABIER: Naikoa! Naikoa!

(Gurutzean beha. Erran kantuz)

Fraide autatu baino lehen
Gizon ninduzun sortua.
Gizon-legepean nago
Gizontasunak artua.
Ez ba nuke gizon bear
Gizon izanik sortua
Ez dakit zer nindukezun
Aingeru edo Debrua!

*(Aita Xabier ixildu delarik, norbaitek
ukitu du bizkarrean. Itzulirik, Aita Nagu-
sia atzemanen du begien aintzina.)*

AITA XABIER *(Kantuz):*

Aita Nagusi
Ez nazazula utzi

Nola nagon ikusi

AITA NAGUSIA:

Nere semea

Hol-ola nahi zaitut

Gizon eta gaztea.

Gau illunean

Atzemanen duzu, seme,

Zeruko bidea.

AITA XABIER:

Aita Nagusi

Ez nazazula utzi

Nola nagon ikusi...

Aita, beha

Nola duzun semea!

AITA NAGUSIA («*Norat oa xoriñoa*» airekin):

Goazen, goazen elizarat

Eman zaite otoitzean.

Antxe duzu, zu bezala

Gizon bat Gurutzean.

Gizon orren belaunetan

Otoitzerat joaiteko

Elurra dut bidean...

AITA NAGUSIA:

Elurra urtuko zaizu

Emanik otoitzean.

*(Badoaz, emeki eta kantuz, bi fraideak
elizarat)*

V. AGERRALDIA

Aita Pello eta Aita Beñat

AITA PELLO:

Ni nauzu, naizta fraidea,
Gipuzkoa-ko semea.

AITA BEÑAT:

Fraidea nauzu ni ere
Baina... Lapurdi-ko seme!

AITA PELLO:

Sortu zarela Frantzian
Ager duzu... usainean.

AITA BEÑAT:

Ni espainarra ba nintza
Lotsaz... ez nindake mintza.

AITA PELLO:

Seguru naiz, pekatua
Frantzia-n dela sortua.

AITA BEÑAT:

Espainia-n oberena

Torero-a ta zezena.

Gu gare, gu, soldadu on
Mintza bedi... Napoleon!!!

AITA PELLO:

Espainatarren odola?

Teresa eta Loiola!

Oien parean zuek zer?

Sartre, Rousseau eta Voltaire!...

AITA BEÑAT:

Donrémy-ko neskatilla?

AITA PELLO:

Zuek sor ta zuek illa.

AITA BEÑAT:

Eta San Luis Erregea

Zer zen? Madrid-ko semea?

AITA PELLO:

Bakizu zer den Frantzia?

Debruaren umia!

AITA BEÑAT:

Eta zuen Espainia?

Oloia ta zorria.

AITA PELLO:

Gora beti Bidassoa

AITA BEÑAT:

Obe balitz itxasoa.

AITA PELLO:

Zuek an eta gu emen!

AITA BEÑAT:

In secula seculorum... Amen!

VI. AGERRALDIA

Lehenkoak, Mari-Gaizto eta Aita Nagusia

MARI-GAIZTO: *(Atetik oyu:)*

Segi hola, nere seme,

Borrokan! Fraideak ere!

Eskualerria ez dedin

Sekulan Erri bat egin!

(Mari-Gaizto lotzen da dantzan. Eta, dantza bukatua, badoalarik, Aita Nagusia atzematen du atean.)

AITA NAGUSIA:

Nor zare zu?

MARI-GAIZTO:

Mari-Gaizto. Ta i?

AITA NAGUSIA:

Aita Nagusia.

MARI-GAIZTO:

Utzi nazak ateratzen.

AITA NAGUSIA:

Oa, sorgin gezurtia.

Oa, urrun, oa laister

Emendik, debrukumia.

MARI-GAIZTO:

Adi zak, otoi, Aita Nagusi

Zertako behar asarre?

Obe diagu tratua egin

Biok eman, biok galde.

Uzten dizkiat zaharrak oro:

Bai Anai eta bai Fraide.

Emaizkidak, ordainean...

Etxeko bizpairu gazte.
Nik eskolatuko ditut
Gizonetan eta bertze.

AITA NAGUSIA:

Oa emendik, sorgin zaharra!
Gaztetan dut itxaroa.
Heien eskuetan dago
Gure Erriaren geroa.
Heiek landuko, dantza ta kantuz,
Eskualerri-ko gogoia.

MARI-GAIZTO:

Aita Nagusi, emaidak batto
Gazte bat nitek naikoa
Eskualerria-n iraun azteko
Herra eta gorrotoa.
Emaidak batto, Aita Nagusi!
Nerea dedin geroa...

AITA NAGUSIA:

Oa hemendik atso zaharra.
Oa, ta ez dezan ahantzi
Euskalerra-ko gaurko gazteak
Bat dutela egin nahi

MARI-GAIZTO (*sutan*):

Mendi mendian iturria dut

Oyan erdian gorderik.
Iturri ori nola idekitzen
Nik zekiat. Nik bakarrik.
Adizak, ondo: Iturri orrek
Ur gorria ekartzen dik.

AITA NAGUSIA:

Oala urrun, oala laister
Atso zaharra, oa emendik!

MARI-GAIZTO:

Igorriko-iat, Aita Nagusi,
Odola menditi-beitik!!!

*(Mari-Gaizto joan bedi. Aita Pello ta Aita
Beñat, izituak, betoz Aita Nagusiarenga-
na).*

AITA PELLO:

Aita Nagusi, nola sartu da
Mari-Gaizto etxe huntan?

AITA BEÑAT:

Atea ideki, guri behatu
Ta lotua zaigu dantzan.

AITA NAGUSIA:

Zertan ziñaten?

AITA PELLO:

Denbora pasa

AITA BEÑAT:

Hola... bakizu...

AITA NAGUSIA:

Borrokan?

Argati sartu da Mari-Gaizto

Ta lotu zaizue dantzan.

Menderik mende, hua ibilki da

Eskualerri huntan Sorgin.

Gezurra ixuriz, bazterrak nahastuz

Odol-mina sortu dadin.

Erriko-sume uts-utsa bai naiz

Eta Jainkoaren mutil,

Irrintzika nabil zuen baitan

Mari-Gaizto dadien hil.

Joanak oro ahantzi ditzagun

Ta geroa dezagun bil!

AITA PELLO (*A. Beñaten beharrirat*):

Iduritzen zaut... gu biontzako

Ari dela predikoan.

AITA BEÑAT:

Nere Aita Pello... Obe genuke

Patata-xuritzera joan.

AITA NAGUSIA:

Gaua da. Orain fraideak oro
Betoz, usaian bezala,
Elizan otoitz eginda gero
Dantza ta kantu egitera.

VII. AGERRALDIA

Komentuko Fraideak oro

*(Fraidien solasaldia dugu. A. Nagusia jarri bedi bere alxian. A. Pello eta A. Beñat, elizako atetik, beren laguneri kei-nuka: etortzeko. Organua asi bedi jotzen; eta fraide guziak elizatik atera bitez, ospetsuki, eskaratzean leku-artuz. Organua ixildu ta asi bitez fraiden jostet-
tak.)*

AITA NAGUSIA: («Lauda Sion» aireakin)

Kanta zagun, dantza zagun
Urbil bai da gure Lagun

Salbatzaile ta Artzaina.

AITA JOANES:

Artzain-Ona mendietan
Ibilki zait ardiketan
Eta ardiak ezagun.

AITA ENEKO:

Dantza gaiten alegera
Mendi-gainetan bai gera
Artzain-Onari Kantuz.

AITA NAGUSIA:

Kanta zagun, dantza zagun
Urbil bai da gure Lagun
Salbatzaile ta Artzaina.

AITA XABIER:

Ardietan ba zen batto
Igesi nai ta Arek «zato».
Antxu galdu zitzaion

DENAK:

Dantza gaiten alegera
Mendi-gainetan bai gera
Artzain-Onari Kantuz.

*(Organuak jo beza, doinuren bat. Eta
fraide gazteak asi bitez dantzan. A.*

Mattin etorri bedi bere lusagar-saskia besoan; eta A. Pello ta Beñat eman bitza patata-xuritzen. Bertze Aita guziek ere lagundu bitzate, beren keinu ta kantaz, fraide gazte dantzariak. Alako batez, atean jo du norbaitek. Dantza gelditu bedi golpez. Fraide gazte batek atea ideki ta agertu bedi Begibeltz. Ari begira, denak arrituak dare.)

VIII. AGERRALDIA

Lehengoak eta Begibeltz

BEGIBELTZ: *(Hilun eta zakarki)* Aita Nagusia?

AITA NAGUSIA: Huna emen.

BEGIBELTZ: Ezagutzen nauzu?

AITA NAGUSIA: «Begibeltz» artzaina! Zer duzu, gizon?

BEGIBELTZ: Zer duzu? Alaba dut mendian utzia. Bakar-bakarrik. Azken atsetan.

AITA XABIER: Maialen? Azken atsetan? Zer du? Mintza zaitel!

AITA NAGUSIA: **AITA XABIER:** Aginduak emaiteko, naikoa naiz ni etxe huntan.

AITA XABIER: Barkatu Aita.

BEGIBELTZ: Igortzen al duzu laister, oietakoren bat mendira. Ez dakit bizirik atzemanen duen alaba. Ni joaki naiz irirat, midiku ketara.

AITA NAGUSIA: Gaixo Gizona! Zer egin zaio alaban ba?

BEGIBELTZ: Amildu mendian, beorketan ari zelarik.

AITA NAGUSIA: Beorketan, gauaz?

BEGIBELTZ: Beorketan gauaz bai, beorketan gauaz. Illegorri-k eraginda. Obe, hil eta gero, gizon zital orrek balu betirako sua.

AITA NAGUSIA: Begibeltz! Aita baten biotz-mina bear da errespetatu. Bainan ez zaitela otoi-etxe huntan ola mintza.

BEGIBELTZ: Bai. Aixe ibiltzen-duzute zuek mihian, eleederrak. Entzun ongi: Gure xola ondoan, atzemanen duzute lurrean zerbait. Behatu ondo: Gizona den edo zakurra. (*Badoa*)

AITA NAGUSIA: (*Bertze fraideri begira*): Barkatuko dizute, nik bezela. Odolak bai dio gaina artu. Entzun duzute, Aitak, artzainaren galdea. Mendian du alaba zauritua. Gauda da. Begibeltz eta hoiien xolak ez dire urbil; eta oroz gainetik,

arako bidea, gauaz, irrisku aundikoa. Bada ilargirik?

AITA JOANES: (*Atetik beatuz*): Gau iluna duzu, Aita. Hilunetarikoa.

AITA ANDES ZAHARRA: Aita Nagusi, barkamendua-kin...

AITA NAGUSIA: Mintza zaite, Aita.

AITA ANDES: Nik ditut emengo bideak ongi ezagutzen. Begiak etxirik ere, joanen nindake aixe Begibeltz eta hoi en xoletaraino. Igorri nazazu, bakar bakarrik.

AITA NAGUSIA: (*Goxoki*) Etxeko biotz gaztena zurea izanik ere, bizkarrean urte geiegi dituzu, Aita, mendian gauaz ibiltzeko.

IRU AITA GAZTENAK: Igorri gaitzazu gu, Aita! Laisterka joanen gaitzazu!

AITA NAGUSIA: Gazteskoak zaizte hoino, olakoetan zer eta nola egin behar den jakiteko. (*Aita Xabier-i begira, gero*) Alta Xabier, artzaingoan ibilla zarezu, mendi hauetan: Gauaz ere, makina aldiz, ardi galduaren billa. Zoaz ba. Kofesa zazu haurra, neska gaixoa, mendian bakar bakarrik izanen duzu. Aitak itzulia egin arte, zaude zu haurraren ondoan.

AITA XABIER: Aita, otoi, ez nazazula igorri.

AITA NAGUSIA: Zergatik?

AITA XABIER: Ez naitekkelako joan.

AITA NAGUSIA: Zer duzu? Aita Nagusiaren aginduak bear dituzu lehen aldiz autsi?

AITA XABIER: Gaua da ta... eroriko naiz.

AITA NAGUSIA: Ongi da. Ez zinduen ezagutzen. Neroni joanen naiz. Aita Joannes, ekarri-iazu makila. Baina bihotz-mina emana dautazu, Aita Xabier. Nere aginduari nola uko egin diozun ikusirik, ez bai dakit gazte hoiek zer bear duten pentsa eta ikas.

FRAIDE GAZTEK: Zoazi Aita Xabier, ez zare eroriko!

AITA XABIER: Bai. Gau hiluna bai da... erori nindake. Mari-Gaizto ere hor ibilki bai da!

FRAIDEK ELGARRI: (Mari-Gaizto? Mari-Gaizto erran du? Mari-Gaizto hemen?)

AITA ANDES: Mari-Gaizto urbil ba dugu, ez dugu odola hurrun.

AITA NAGUSIA: Hola uste dut nik ere. Mari-Gaizto ez zaizue mendi hauetarat etorriko, ez ba da odola ekartzera. Baina Mari-Gaizto'ren nagusia baino, azkarragoa da Gurea. Eta gaur, mendi hauetan, biak borrokan egin bear ba dute, ikusiko, dugu

Nork nori artuko dion gaina. (*Makila eskuan arturik, abiatzen da kanporat.*)

AITA GAZTEK: Joanen gare zurekin, Aita Nagusi!

AITA NAGUSIA: Ez. Zaudete zuek emen, atzarrik, Aitak.
(*Abiatzen da.*)

AITA XABIER: Aita Nagusi, ez nazazu aditu gabe gaitzetsi. Ez zaite neri entzun gabe joan. Mintza gaiten buruz buru biok.

AITA NAGUSIA: Buruz buru biok.

AITA XABIER: Bai Aita.

AITA NAGUSIA: Zato ba nerekin elizarat. (*Fraidieri begira, gero*) Eta zuek, ene semeak, zaudete emen otoitzean. (*Badoaz*)

IX. AGERRALDIA

Aita Nagusi eta A. Xabier ezik, bertze lebengoak oro. Heiek ere sarri ageriko.

IRU AITA GAZTEK: (*A. Anddes-i*)

Egizu zuk otoitz,

Aita Zaharrena zu zare-ta.

AITA ANDES:

Zuek lehena, zuek lehena...
gazten otoitza hai da pullitena!
Andre-Dena-Maria'ri
Egiazute emaitza

AITA ENEKO:

Nik kantu eginen diot!

AITA JOANES:

Nik soiñu!

AITA IKER:

Nik dantza

(Iru Aita Gazteak eman bitez, Andre-Dena Maria Iduriaren aintzinean. Eta A. Eneko kantuz lotuko delarik, A. Iker asi bedi Ama Birjinari dantzan. A. Joanes dute albokari. Bertze fraide guziak begoz Iduria-ri begira.)

AITA ENEKO: (*«Zuk zer duzu Arantzazu...» airean*)

Agur Zuri
Andre Mari.
Fraide nauzu
Ta dantzari.

Otoi dagizut gure anaia
Ez dadin gauaz erori.
Mendi mendian gau illuna.
Irriskuan dut laguna.
Ezazula utzi gauaz erortzen
Zuretzat auta duzuna.
Agur Zuri
Andre Mari!

*(Dantza bukatu baino lehen, atera bitez
elizatik A. Nagusi ta A. Xabier. Onek
artua da, orain, makila eskuan. Aita
Nagusiaren aintzinean belaunikatu bedi.
Eta hunek benedikaturik, atera bedi hua
mendirat. Aita Nagusia, lotu bedi kantuz)*

Agur Zuri
Andre Mari.
Mutil nauzu
Ta nagusi.
Otoi dagizut nere semea
Ez dadin gauaz erori.
Zaude zerutik ari beha
Igorri-iozu bakea

Gizon izanik oroitu dadin
Apez dela ta fraidea.
Agur Zuri
Andre Mari!

(Kanpoan, bat-batez, aditu bedi Mari-Gaizto'ren dantza-soiñua. Fraideak oro, hua entzunik, arrituak dagoz. A. Nagusia, soseguan, lotuko da berriz kantuz:)

Agur Zuri
Andre Mari...

*(Eta A. Eneko dantzan ari delarik, fraideak oro begoz belauniko, besoak gurutzean. Anai Mattin, saski aundi bat besaspian, orduantxe sartuko. «Aitaren» egin eta lurrean jarririk, patata-xuritzen asi bedi: Otoitza gisa.
Eta hola, pulliki pulliki, oyalak etxiko)*

IRUGARREN ZATIA

I. AGERRALDIA

Lehen zatiko toki hua bera. Goizeko iru orenak. Tarteka, ilargia ageri. Urrundik aditu bitez, orain ere, behorren arrabots eta irrintzinak. Oyalak idekitzean, ez da nihor ageri. Gero, Illegorri ateratuko xolatik. Arpegi-eskuak odoletan ditu. Erdi arrastaka, badoa bideraino.

ILLEGORRI: Nun da hori? Nun da Begibeltz ori? Bazuen astea ba, hiritik itzulia egiteko. Argi-astea ez urrun. Zetako argiastea? Barnean gaua delarik, ez litake behar kanpoan egun. (*Biderat urbildu eta handik oyuka*): Begibeltz! Ago ixilik behorra! Ire irrintzi ta urrats-arrabots oiek errotuko naute-ta. (*Bere baitan, gero*): Begibeltz! Ez diat ire beharrik. Ire alabagatik ari nauk iri deika. Ez neregatik. (*Maialen-en xolarat urbilduz*) Atsa badu beti... Ez genuke, ba, zakurra bezela hil-

tzen behar utzi. Urbilduko ba nintzaioke... (*Xolako atea idekiko du, pulliki.*) Maialen! Maialen!...

MAIALEN: (*Barnetik*) Nor da hor?

ILLEGORRI: (*Eztiki*) Illegorri naiz, zure laguntzerat eldu.

MAIALEN: Illegorri? Aita! Illegorri atean! Behorrak! Sarzaizte behorrak! Illegorrik ilen gaitu!

ILLEGORRI: (*Xolako atea etxiz*): Obe dut bakarrik utzi. (*Eta, erdi arrastaka, sartuko da bere xolan berriz.*)

II. AGERRALDIA

*Mari-Gaizto bakarrik. Gero Mari-Gaizto
eta Illegorri*

MARI-GAIZTO: Esperantza! Esperantza! Nik ere badiat ene esperantza! Odola diat ene esperantza. Odola! Odolaren usaina... Odolaren beroa... Odolaren gorria... Odolari egiten diot otoi eta kantu eta dantza. Gora i, Gorrotoa! Ta ire ume odol gorri beroa. (*Lotzen da, ixil-ixilik dantzan.*)

Gero, urbilduko zaigu Illegorri-n xolarat. Eta aren atean joko.)

ILLEGORRI: *(Barnetik)* Nor da hor?

MARI-GAIZTO: *(Goxoki)* Mayi!

ILLEGORRI: Ze Mayi? Nungo Mayi?

MARI-GAIZTO: *(Ezti-eztia)* Nungo Mayi... Eskualerriko Mayi.

ILLEGORRI: *(Atea idekiz)* Ze behar dun emen?

MARI-GAIZTO: Zer duk arpegian? Odola? Zer egin aute, gaizoa? Erori? Ekarriko diat ura, iturritik...

ILLEGORRI: Oa emendik, atso zorgin zaharra. Ez dinat ire beharrik. Nundik eldu aiz?

MARI-GAIZTO: Ire soroetarik. Nigargarria duk, nigargarria. Badituk... olakotze ziloak. Lurra bustia bai uen. Eta Illegorri-n behorrak antxet ibilki, beren zango aundiekin, arat-unat, erroak bezala. Akabo zuen sorhoak. Ainbat lanez, ainbertze izerdiz iraulitako sorho eder aiek. Ez nizkian nereak baina, baserritar-alaba izaki neroni ere ta, holako makurra ikusirik, nigar egin behar, nigar. *(Lotzen da nigarrez)* Eta auzoak ideki atea behorreri!...

ILLEGORRI: *(Sutan)* Nork? Begibeltz-ek? Begibeltz-ek ideki atea behorreri? Nola dakin? Erran! Mintza adi! Mintza adi laister, bertzela...

MARI-GAIZTO: Neronek ikusi!... Ez nuen ba erran nahi, baina...

ILLEGORRI: Gezurti ustela! Ta arek ukatu neri! Oa. Yakinen diat nik orain zer egin *(Sartzen da bere xolan)*

MARI-GAIZTO: *(Kanpotik)* Ago ixilik, Illegorri. Ez adi asarretu hola. Begibeltz gizon ona duk. Barka zak. Barka zak, otoi! Yakin izan ba nu, ez nian erranen... *(Gero, bere baitan)* Iretsi duk amua! *(Lotzen da berriz, ixil ixilik dantzian. Eta badoa.)*

III. AGERRALDIA

Illegorri bakarrik. Gero Aita-Xabier ekin

ILLEGORRI: *(Xolatik ateratuko, xispa bizkarrean duela)* Egiaren jabe nauk, orain. Bazekiat, orain, egi osoa. Begibeltz-ek ideki behorreri atea. Neri trufa ta irri egiteagatik. Eta alaba zauritu zaiola-

rik, orduantxet etorri huna, nigarrez, arrastaka,
laguntza-eskean, emaztekoa bezala. Eta huna
nola utzia nauen: doi-doia bizi. Odola nahi ba
zuen, izanen du odola. Ixo! Eldu da norbeit.
Urratsak ezagun dire, gau illunean. Bera diat.
Eman beharko dizkit argibideak (*Gordetzen da*).

AITA XABIER: (*Bidetik. Erran-kantuz*)

Mendi-mendira gau illunean
Zergatik igorri naute?
Aize egoari jostagarritzat
Ostoa emana diote.
Egarri bai naiz, iturri ondoan
Ez ninduten behar utzi.
Espainak, sutan erreko zaizkit
Urerat ez ba doazi.

ILLEGORRI: (*Gorde lekutik*)

Nor ari zaiku, bakar bakarrik
Gau illunean oyuka?

A. NAGUSIAREN ABOTSA:

Gau illunean, Mari-Gaizto'kin
Andre-Maria'k borroka!

MARI-GAIZTO'REN ABOTSA:

Mendi huntan gaur nausitu bitez
Odola ta gorrotoa!

ANDRE-MARI'AREN ABOTSA:

Mendi huntan gaur nausitu bitez
Bakea ta Amodioa!

A. XABIER (*Belauniko*):

Arantzazu-ko Andre Maria!
Behar ba nauzu, banoa
Zerua bedi aizea eta
Aita Xabier ostoia!

*(Hau erranik, idekiko du A. Xabier-ek
ateska. Eta barnerat sarturik atzematen
du Illegorri zokoan gordeta.)*

IV. AGERRALDIA

A. Xabier eta Illegorri.

ILLEGORRI: (*Gordeleikutik ateratuz*) Nor da hor?

AITA XABIER: Aita Xabier. Nor zaitut zu?

ILLEGORRI: Illegorri artzaina.

AITA XABIER: Noren begira zinen or, zokoan gordeta?

ILLEGORRI: Gorde behar lirakenak, agerian bai dire ibilki.

AITA XABIER: Neri buruz zare mintzo?

ILLEGORRI: Zuk ez ditutzu eskuak odolez gorrituak.

AITA XABIER: Nor duzu ba buruan? Begibeltz?

ILLEGORRI: Eskuetan ere ukanen dut laister. Bainan hila.

AITA XABIER: Zer zare ba zu? Biziaren jabe? Zer zaizte zuek, otso edo gizon?

ILLEGORRI: Gizonentzat gizon, otsoentzat otso, zakurrentzat zakur.

AITA XABIER: Nun da Maialen?

ILLEGORRI: Ortxet, bere xolan, bakar bakarrik.

AITA XABIER: Bere xolan... Eta haurra utzia duzu, gau osoan ola, bakarrik!

ILLEGORRI: (*Ukitua*) Ze nauzu. Ni ikusi ordu, izutzen baita.

AITA XABIER: Ez duzu beaz, zuk ere, barnea garbi.

ILLEGORRI: (*Nigarrez*) Ez duzu nere kopeta ikusten? Ez duzu nere eskuetako odola ikusten? Emen gertatuak erranen dauzkitzut garbi.

AITA XABIER: Ez orain. Ez dut oraino astirik. Maialen ganat etorria nauzu. Yainkoaren izenean, behar diozkat pekatuak barkatu.

ILLEGORRI: Pekatuak barkatu? Ez du horrek pekaturik.
Herratsuak, aiherrak, herrakorrak... gu gare.
Amaren umiak gaituzu, ahagatik. Ta otoitzean
ikasiak. Bainan... auzoa barkatzen ez.

AITA XABIER: Horra, borren gerokoak.

ILLEGORRI: (*Oyuka*) Aizea! Ura! Sua! Artu ta ereman
nazazute zuekin. Hola bizitzea baino, hobe baita
betiko hil! (*Behorreri, gero.*) Zagozte ixilik,
behorrak! Errotuko nauzute (*Illegorri sartuko da
bere xolan.*)

ANDRE-MARIA'REN ABOTSA. (*Erran-kantuz*)

Arantazu'ko Aita Xabier!
Zu zaitut beharrezkoa
Mendi mendian nausi ditezen
Bakea ta Amodioa.

AITA XABIER:

Arantzazu-ko Andre Maria!
Behar ba nauzu, banoa.
Zerua bedi aizea eta
Aita Xabier ostoa!

(*Aita Xabier gelditu bedi ixtan bat ixilik,
geldi, otoitzean. Eta sartu bedi gero,
Maialen-en xolarat.*)

V. AGERRALDIA

*lakes eta Mari-Gaizto; Xola barnetik,
Maialen eta A. Xabier-en abotsak.*

IAKES: *(Bidetik. Zakurrekin eldu)*

Nere zakurrak! Zagozte ementxe.

Lurrean etzan eta lo.

Etzaizte beldur. Urbil nauzute.

Xola ondoan, ortxet, nago.

Argi astean, egunarekin

Abiatuko erbitara.

Erbi-goseak zaiztela dakit

Ikusiz zuen dardara.

Egon ementxet. Etzan eta lo

Nik ez bai dut lo beharrik.

Xolan ondoan egonen naiz ni

Maiteari so egiñik.

Xola hortan dut maitea lotan.

Begi ta ile beltzak ditu.

Izarra bezin garbia izaki

Ta ez dut oraindik ukitu.

Zagozte ementxe, nere zakurrak,

Xolarat nadin urbildu.

Nere maitea lo dagolarik

Atsa behar diot aitu.

(Atea idekiko du)

Aita zenari entzuna diot

Aundia dela mundua.

Mendi mendian, auxe da nere

Bozkariozko lekua.

MARI-GAIZTO: *(Bidetik)*

Yainkoak gabon deizula, Gazte.

IAKES: *(Ari behatu gabe)*

Nor zaitut or?

MARI-GAIZTO: :

Nor naizen ni?

Yaneko behar ninduzun ezaun.

Naiz... Eskualerri-ko Mayi.

IAKES:

Ze behar nauzu?

MARI-GAIZTO:

Etzaitut behar.

Zu zaitut nere beharrik.

IAKES:

Neregatikan joaten al zera
Etorri zaren bidetik

MARI-GAIZTO:

Mendi hauetan, Maialen duzu
Neskatxarik pullitena...
Gorputzez eder ta gogoz garbi
Antza du... izarrarena.
Nigargarria litake, lakes,
Ez ba zenu zuretako.

IAKES:

Munduan ez da sortu gizonik
Ar lezaken beretako.

MARI-GAIZTO:

Etzekiat ba...

IAKES:

Zoaz emendik.

MARI-GAIZTO:

Naiago duk itxu bizi?
I bezalako gizon gazte bat
Egiari hola igesi?

IAKES:

Zoaz emendik, atso zitala.
Mihi luzeko sugea.

MARI-GAIZTO:

Behazu ongi bertze norbaitek
Ebatsi dizun ogea.

IAKES:

Horren iltzeko ez nuke behar
Egi osoa: laurdena.

MARI-GAIZTO:

Ta behar ba litz... ilgo zenuke
Zure lagun oberena? (*Badoa*)

IAKES: (*Bere baitan*)

Nor nuen emen? Lo beharra dut?
Zer nuen ori? Ametsa?
Lasaitu nadi. Aditu dezan
Nere maitearen atsa.

(Urbilduko da xolarat, eta so emanen)

Iduritzen zaut, bertzetan baino
Atsa larriago duen...
Beldur naiz, nere urratsak aituz
Golpez atzartu ote den.

MAIALEN: (*Xola barnetik. Ari da kofesatzen*)

Maitasuna? Bai. Aspalditik zait
Bihotz barneraino sartu...
Ez dut ekarri. Etorri egin zait.

Etorri eta nik artu.
Etzait iduri, amodioaz
Egin dudarik pekatu.

IAKES:

Ametsetan dut amodioaz?
Sukarrak artu ote du?

MAIALEN:

Erranak erran... nere barneak
Bertze pekaturik ez du.

IAKES:

Norkin mintzo zait? Aitarekin ez.
Bere buruakin ari?

MAIALEN:

Aita Xabier! Beldur diozu
Nere amodioari?

IAKES:

Odol-golpeak itxutua nau.
Zer dut? Gezur edo egi?

AITA XABIER:

Joaki naiz, aurra. Zaude bakean
Ta atxikiozu loari...

IAKES: *(Biderat urbildu eta zakurrak lasatuko ditu.
Sutan erranez)*

Zoazte zakurrak! Zoazte saingaka!

Zoazte izirat! Zoazte emendik!
Nere horaingo egitekoak
Ez du behar lekukorik

*(Zakurrak abiatuko dire saingaka. Iakes
sartuko berriz atarian. Eta Xolako pare-
tan den aiztoa, eskuan artuko. Arekin
gordeko da, gero, bide gibelean. Andik
oyu eginez)*

Hemen natxeok. Ire beha nauk.
Eskuan diat aiztoa.
dolarekin garbituko duk
Egin dikan iraingoa.

VI. AGERRALDIA

*Aita Xabier eta Iakes. Gero biok eta Ille-
gorri.*

AITA XABIER: *(Maialen xolatik atera)*
Arantzazu-ko Andre Maria

Hemen duzu zure mutil.
Zuk eskatua emana dautzut
Naiz-eta miñez antxu hil
Ostoa nauzu ta aizea zare...
Ar nazazu ta erabil!

(Hau erranik abiatzen dela, lakes aterako zaio gordelekutik. Aiztoa eskuan dakar eta begietan su.)

AITA XABIER: *(Arritua)* lakes! Zer duk? Errotu aiz?

IAKES: *(Erroturik)* Ago ortxet! Egizak gibelat! Egizak gibelat!

AITA XABIER: Baina lakes! Errotu aiz? Zer duk?

IAKES: *(Irriz, trufaka)* Huna emen, nere lagunik obere-na! Nere haur-demborako adiskidea! Ni gabe; hilun zena!...

AITA XABIER: lakes! Baina zer duk lakes?

IAKES: Huna emen, otoitz eta penitentzian bizi zitzai-gun fraidea

AITA XABIER: Baina lakes! Zer pentsatu duk?

IAKES: Pentsa? Ez diat pentsa! Entzun egin diat. Entzun eta ikusi...

AITA XABIER: Adizak itz bat, lakes! Maialen...

IAKES: Etzakala itz ori eman. Itz ori ez duk irea!

AITA XABIER: lakes, nere adiskide!

IAKES: Ago ixilik, saltzaile ustela! Mari-Gaizto'k uen egia! Mari-Gaizto'k bai, Mari-Gaizto'k...

AITA XABIER: Adi zak!

IAKES: Ez! Ixiil adi orain, betikotz! (*Sartzen dio bihoztzean aiztoa. Ta Aita Xabier lurrerat eroriko. lakes-ek, gero, bota beza aiztoa lurrerat. Errtua bezela, gero*) Horra zertan gelditu diren, gure haur-demborako eskolaldi ta pillota-partidak! (*Urrun, aditu bedi Mari-Gaizto dantzan*)

ILLEGORRI: (*Xolatik irten*) Ago ixilik sorgin zikiña! Oa emendik urrun dantzan egitera! (*lakes atzematzen du*) Zer duk? Nor duk or, lurrean? Zer da gaur emen? Debrua dantzan ibilki? Nor il duk, erro alua? Nor il duk?...

IAKES: Munduan bizi zen saltzaillerik ustelena. Ioan irirat orain, eta erran: etortzeko, lakes preso artzerat.

ILLEGORRI: Joan adi emendik. Urrun adi. Gorde adi. Ez diat ire beharrik.

IAKES: Ez naiz ni nere burua gordetzen ibiltzeko sortua. Egin beharrak, egin. Ta ordaindu beharrak, ordain.

ILLEGORRI: *(Makurtu ta artzen du A. Xabier besoetan)*
Bizi duk! Bizi duk oiño! *(Ematen du jarririk, arri baten gainean)* Zer pentsa duk ik, erroa, hola-
korik egiteko?

IAKES: Pentsatu ez. Ikusi egin dut. Xola barnean zego-
zen biok. Eta nik entzun.

ILLEGORRI: Entzun? Zer entzun? Apeza entzun, haurra
kofesatzen?

IAKES: Kofesatzen! *(Lotzen da irri-zaflaka)*

ILLEGORRI: Kofesatzen bai, kofesatzen!

IAKES: Gezurra! Hauek ez dire kofesatzeko tenoreak.

ILLEGORRI: Ez dakik neskaxa mendian erori ta zauri-
tua uela?

IAKES: Gezurra!

ILLEGORRI: Gezurra?

IAKES: Gezurra bai, gezurra! Gezurretan bizi ta aseak
zuek: artzain zahar eta fraide. Ez nian, mun-
duan, besterik. Ontasun bat. Ortxet. Xola
horren barnean. Eta hunek ebatsi. Hunek. Nere
lagun oberenak. Eskolan eta, pillotan eta, elga-
rrekin ibilliak. *(Lotzen da negarrez)*

ILLEGORRI: Adi zak, ume basa. Gizon ba aiz, jaiki adi.
Joan adi xolaraino. Ideki zak atea pulliki. Eta sar.
Beha zak aurra ongi. Lo izanen duk, nik uste.

Kopeta ez ba du beltzitua ta ezpainak odolez gorrituak, gezurra erran diat. Ator orduan. Emen izanen nauk. Bainan nik erranak ba dituk egi, ator orduan ere. Ta eman adi hemen belau-niko, ire lagunaren ondoan. Aditu duk? Oa!
(lakes jaiki ta, ametsetan bezala, badoa Maialen-en xolarat. Andik atera ta badator gero pulliki, burua lurrean, A. Xabier-en ondora. Lotuko da oyuka. Ta lagunaren belaunetarat eroriko.)
Ay ama! Ay ama! Zer egin diat nik? Ay ama!
(Lotzen da nigarretan.)

ILLEGORRI: *(lakes-i)* Ago emen. Iduki zak laguna besotan. Ur freskua behar zioat iturritik ekarri.
(Badoa)

VII. AGERRALDIA

lakes eta Aita Xabier

IAKES:

Hila duk, ila!

Hila duk, ila!

Nere laguna diat hil!
Gazte-demboran artaldeakin
Mendietan biak ibil!
Hila duk, ila!
Hila duk, ila!
Ez dik ikus, ez duk ibil
Lagun bat nian munduan eta
Nere laguna diat hil!

AITA XABIER: lakes!

IAKES: Nundik eldu aiz? Bizi aiz? Ago. (*Artzen du lurre-
tik aiztoa*) To! Artzak aiztoa! Hil nazak! Ez diat
bizi nahi!

AITA XABIER: (*Aiztoa eskuetan ibiliz*)

Gaizo aiztoa! Zehorrek nauzu
Zeruko bidea ideki.
Nun ago, lakes? Ez adi urrun...
Ator. Belaunikatu adi...
Nigarretan aiz? Urrikia duk.
Aiskidetu zaik Yainkoa.
Laguna izaki ta apeza bai nauk...
Ire barkatzerat noa!

(*Gurutzea eginik, A. Xabier-ek emanen
dio lakes-i barkamena.*)

IAKES:

Xabier! Nere Xabier!
Gizon aiz edo aingeru?

AITA XABIER:

Ez lagun... Nere buruak
Aingerutasunik ez du.
Pekatuak barkatzeko
Aingeruek... ahalik ez.
Artako behar duk izan
Gizon... Gizon eta apez.
I bezela nauk... lakes.
Ezur eta aragizkoa.
Hargatik... artzen... ahal dut
Nere eskuetan Yainkoa.
Aingerutasuna baino
Gorago duk apezgoa.

IAKES:

Lagunak barkatu al nau
Edo apezak bakarrik

AITA XABIER:

Ikusten... ikusten diat
Maite naukala... barnetik.
Oroitzen?... Gure aur-denboran

Mendian artzain bai giñen
Biok... itzalean jarri
Ta gazna jaten genuen.

IAKES:

Nork erran behar, orduan,
Egun batez...

AITA XABIER:

Ago ixilik!
lakes... bai... ikusten diat
Maite naukala barnatik.

(Kanpoan, argi-astea dugu. Xorien kantak aditu bitez. Eta, bat-batean, urratsak adituko dire bidean. lakes jaiki ta badoa ateskaraino. Begibeltz eldu.)

VIII. AGERRALDIA

Begibeltz, lakes, A. Xabier eta Illegorri

IAKES: Bakarrik eldu? Nun duzu midikua?

BEGIBELTZ: Midikua? Yauregietarat aixeago urbiltzen, oiek ere, artzainen xoletarat baino. Bizi duk?

IAKES: Bai. Lo duzu. *(Begibeltz, A. Xabier sumatu gabe, sartzen da bere xolan.)*

ILLEGORRI: *(Pitxarrakin eldu)* Nor uen, emen?

IAKES: Begibeltz.

ILLEGORRI: Midikua?

IAKES: Ez du berakin ekarri.

ILLEGORRI: Agertuko da hua ere. Behar ez delarik. *(Ematen dio edaten A. Xabier-i)*

BEGIBELTZ: *(Xolatik irten, Iakes-i)* Lo zegok. Atsa artzen dik pulliki. Orain... salbo diat, nik uste. Fraiderik izan duk, emen?

IAKES: Bai.

BEGIBELTZ: Nor uen?

IAKES: Aita Xabier.

BEGIBELTZ: Yoana duk?

IAKES: Ez.

BEGIBELTZ: Nun zegok ba?

IAKES: Hortxet.

BEGIBELTZ: *(A. Xabier-engana urbilduz. Iakes-i)* Zer egin dik? Erori?

IAKES: Ez.

BEGIBELTZ: Ze ba?

IAKES: Nik il.

BEGIBELTZ: Errak egia. Zer duk emen egun. Debrua nausitu?

ILLEGORRI: Ez ba lu mutillik, ez litake nausituko hua ere.

BEGIBELTZ: Mutilla? Nor duk emen debruaren mutil?

ILLEGORRI: Ago ixilik, i. Hunen aintzinean ere, ez duk errespeturik ekarriko?

AITA XABIER: Nun da lakes?

ILLEGORRI: Ez duzu hurrun.

AITA XABIER: Behar nuke urbilago. (*lakes, nigarretan, urbiltzen zaio. Bi artzain zaharrak, bazterturik, lotu bitez zakarki eleketan.*)

BEGIBELTZ: Zer duk emen gertatu?

ILLEGORRI: Ez nauk zalataria.

BEGIBELTZ: Ze ago? Egiari beldur? Errak

ILLEGORRI: Egia nahi duk entzun? Iretsi zak ba egia. I aiz emen, obendun bakarra. Ik ez ba ituen behorak laxatu, ez uen emen olako gau beltzik gertatuko.

BEGIBELTZ: Ez dizkiat nik laxatu behorak.

ILLEGORRI: Ago ixilik. Ik uste gabean, baituen-eta inguruan begiak.

BEGIBELTZ: Begiak? Noren begiak?

ILLEGORRI: Erran diat lehenere: Ez nauk zalataria.

BEGIBELTZ: Zalataria? Holako gezurra ibili dikan mihiak, behar likek sutan erre. Zetako laxatuko nizkian nik behorak?

ILLEGORRI: Gure sorhoak ondatzeko.

BEGIBELTZ: Ze behar nian nik artan irabazi? Alaba galdu, antxu. Zehorrek mendirat igorria. Beste-rik ez.

ILLEGORRI: Bekaizkeriagatik egin duk. Guri trufa ta irri egiteko.

BEGIBELTZ: Irri? Aspaldi ahantzia diat nik, irri egiten. *(Hau erranik, ixildu bitez.)*

IAKES: *(A. Xabier-i)* Ez; Ori ez. Ori ez diat eginen. Etzai-dak ori eskatu. Ameika bizitza ba nitu iretako litazke. Baiñan ori ez.

AITA XABIER: Ze behar duk ba egin?

IAKES: Nere burua preso eman.

AITA XABIER: Gure haur denborak gogoan dituk?

IAKES: *(Lotzen da nigarrez)*

AITA XABIER: Adizak ba nere azken nahia. Ta artzain zaharrak ekarritzak lekuko.

IAKES: Illegorri! Begibeltz!... Etortzeko. *(Hauek urbil-tzen zaizkio)*

AITA XABIER: Yarri... Gizonak. *(Iakes gelditzen da xutik)*

BEGIBELTZ: (*lakes-i*) Yarri adi ba

IAKES: (*Ahalketurik*) Gizonak... erran du.

BEGIBELTZ: Artarat, nor behar uen emen jarrita egon?
(*Yartzen da, lakes ere*)

AITA XABIER: Gizonak... Gaur emen gertatuak... begoz gure artean. Aita Nagusiak... jakin beza... egi osoa. Bertze nihork ez. Gauaz bidean lerratu... ta arri zorrotz batek... egina nau bihotzean zauria. (*Deneri begira*) Erran bezela?

BEGIBELTZ: (*Deneri behatu ta gero*). Erran bezela.

AITA XABIER: Bertze zerbait ere... badut. Aita Nagusiak... igorria ninduen... zuengana.

BEGIBELTZ: Guregana?

AITA XABIER: Bai... zuengana «Zoaz... erran dit... eta eramazu... mendirat bakea».

ILLEGORRI: (*Hillun*) Bakea? Behorak or dire ibilki. Norbaitek ez balitu laxatu...

BEGIBELTZ: (*Sutan*) Ez ditut laxatu nik!

ILLEGORRI: Gezurra!

BEGIBELTZ: Gaiztakerian bazekiat, behar delarik. Baina gezurretan ez. Hunen odolaren aintzinean erraiten diat: Ez diatala nik behorrik laxatu.

ILLEGORRI: Nork eginen zuen ba? Aizeak? Emen ez da bertze nihor ibilli... Mari Gaizto baizik.

AITA XABIER: (*Burua xutitu ta abotsa altxatuz*) Nik dakit... nork... egin duen.

BEGIBELTZ: Ixo...

AITA XABIER: Ni... hil nauen... berak

ILLEGORRI: (*lakes-i begira*) Hunek? Hunek behorrak laxatu?

BEGIBELTZ: Ik?

IAKES: (*A. Xabier-i begira*) Nik?

AITA XABIER: Ez!... Mari-Gaizto'k! Aita Nagusiari... errana zion... «Nik igorriko diat... menditik beiti... odola.» (*lakes erori bedi, nigarrez, A. Xabier-en belaunetarat*) Ez lagun, ez. Ik ez nauk il... Mari-Gaizto'k il nau. Arek mendiratu ditu... behorrak. Ikasia baita... pindar txipiakin... su haundiak egiten.

IX. AGERRALDIA

Lehenagoak eta Mari-Gaizto

MARI-GAIZTO: (*Bidetik*) Gezurra! Gezurra! Illegorri! Behorrak mendian dituk! Adi itzak!... Adi

itzak!... (*Aditu bitez behorren arrabotsak*) Etzak barka! Etzak amor eman! Bakerik ez! Bakerik ez

ILLEGORRI: Oa. Urrun adi. Ezagutu aut.

MARI-GAIZTO: Fraide ustela! Zalatari zikina! Urde madarikatua!

BEGIBELTZ: Gaude ixilik. Doala.

MARI-GAIZTO: Hil beharra duk! Leher adi!... Hil adi!...

AITA XABIER: Neri... hiltzeak ekartzen bizia. (*Mari-Gaizto atarian sar, Aita Xabier-en gana urbil, eta thu eginen dio arpegirat. Artzainek nahi dute jo. A. Xabier-ek*) Ez uki. Doala. (*Mari-Gaizto badoa.*)

ILLEGORRI: (*Begibeltz-enganat urbilduz*) Begibeltz, barka nazak.

BEGIBELTZ: Badiagu, biek ere, elgarri barka beharra.

AITA XABIER: (*lakes-i*) lakes... Gaurko euskeldunak... buruz buru... hola behar litazke mintza.

BEGIBELTZ: (*Illegorri-ri*) Sorhoa berrituko diagu, bien artean. Idiak ekarriko-tut nik, etxetik.

ILLEGORRI: Azia badiat nik, sellauruan.

IAKES: (*Ahalketurik*) Artzen ba nauzute, emanen dut nik izerdia.

AITA XABIER: Gaurko euskeldunak... Euskalerra-ri buruz... hola behar litazke mintzo.

ILLEGORRI: Auzoak behar eta, otsoak izaki.

BEGIBELTZ: Gaude gizon, Illegorri, gaude gizon.

AITA XABIER: Munduko... bakearen alde... egin dugu...
urrats bat.

MARI-GAIZTO: Bakerik ez! Bakerik ez! Gorrotoaren
alaba nauk! Odolaren ama! Euskalerrri-ko Etxe-
koandrea! Nere dantzak uxatuko bakea. Soinu-
lari, jo zak soinua! (*Ez da soinurik aditzen*) Soi-
ñulari, jo zak odol-dantza!... (*Adi bitez, xorien
kantak. Mari-Gaizto sutan*) Xori madarikatuak!
Itoko nauzute, itoko! (*A. Xabier-engana urbil-
duz*) Ni baino azkarragoa ote aiz (*Erori bedi
lurrerat.*)

ANDRE-MARIA-REN ABOTSA:

Arantzazu-ko Aita Xabier
Zu ziñen beharrezkoa
Mendi-mendian nausi zitezen
Bakea ta amodioa.

AITA XABIER:

Arantzazu-ko Andre Maria!
Behar ba nauzu banoa
Zerua bedi aizea eta
Aita Xabier ostoa

*(A. Xabier-ek beitu beza burua. Iru
gizonek beren xapelak erantzi. Kanpoan,
adi bitez, orain ere, xorien kantak. Eta
hola, pulliki pulliki, oyalak etxiko.)*

AMAYA

Euzko-Gogoia, 1957ko iraila-gabonila